

EITB-KO GALDERA ZERRENDARI GRAMATIKA BATZORDEAK ORAINGOZ EMATEN DION ERANTZUNA

Gasteizen, 1995eko apirilaren 27an

Igone Etxebarria

EITB

Iurreta (Bizkaia)

Adiskide on:

Honez gero luzetsiak izango bazarete ere, hona hemen azkenean Gramatika batzordeak 1994ko azaroaren 21eko zure galde-zerrendari eskaintzen dion erantzuna. Eztabaida luze samarrak izan ditugu eta eskueran dugun corpusean murgilduta ere ibili gara ahalik eta erantzun zuzenena emateko asmoz. Horregatik izan da gure atzerapena. Espero dut hartu dugun lana ez dela alperrik izango eta probetxuzkoa izango duzuela gure iritzia. Nolanahi ere, kontuan izan erantzun hau oraingoz eman dezakegun egokiena dela. Behar bada, aurrerago beste zerbait biribilagoa eskaintzeko gauza izango gara. Baina gaur gaurkoz, hau da esan dezakeguna.

Eta besterik gabe, beti ere zuen agindura, agurtzen zaituzte,

Patxi Goenaga,
Gramatika batzordearen idazkaria.

1. *Errege* eta abarrei buruzko iritzia:

a. Literaturan erabilera desberdinen lekukotasunak aurki daitzeke. Hala ere, ereduren bat eman behar denez, hau izango litzateke arau orokorra: “Bakarrik doanean, inolako adjektiborik edo osagarririk gabe, erabil bedi mugatzailearik gabe: *Errege*, ez **Erregea*”.

Hori litzateke, adibidez, bokatibo gisa erabili behar deneko jokabidea.

Baina zehaztua doanean, ezkerretara osagarriren bat daramala, orduan mugatua: *Gure erregea* erabiliago *gure errege* baino; *Suediako erregea* erabiliago *Suediako errege* baino. Eskuinetara adjektiboa daramanean ere mugatua izan behar du nahitaez: *errege gaztea*, ez **errege gazte*”.

b. *Maiestate*-ren kasuan, gure iritziz, mugatuan erabiltzea hoberena, bai hirugarren pertsonan, bai bigarren pertsonan: *Maiestatea* (bokatiboan, adibidez), *Maiestateak agindu du...*; *zure maiestatea...* e.a.

2. Zenbait aditzen laburdurak ahozko erabileran:

Utz ezazu < *utzazu*

Utz iezadazu < *utzazu*, *utzidazu*

Esan iezadazu < *esadazu* (baina *esaiozu*> esan iezaiozu

Eman iezadazu < *emadazu* (baina *emaiozu* > eman iezaiozu)

Entzun iezadazu < *entzu(i) dazu*

Horrelako ebakerek batez ere lagunarteko hizkerarako balio dute, ez hain beste, egoera formaletarako.

3. *Hiruk baino gehiagok* da, gure ustez, hobestekoa. Darabilgun corpusak ere hala erakusten digu. Arau orokorra hau litzateke: *baino*-ren bi aldetan kokatuak agertzen diren osagaiak, biek, eramatea atzizkia. Horrenbestez:

5.000 ikasleK baino gehiagoK

NORI, NORENTZAT eta abarretan ere jokabide bera hobetsiko genuke:

Bati baino gehiagori entzun diogu; batentzat baino gehiagorentzat hori ezinezkoa izango da...

Baina *arrantzaleek 100 pta. baino gehiagotan saldu dute arraina* baino hobe beste hauek: *...100 ptatik. gora saldu dute* edo *100 pta. baino garestiago saldu dute*.

— *TIK GORA* egiturak badirudi absolutiborako balio dezakeela baina ez bestetarako: *5.000 ikasletik gora sartu dira* baina ez **5.000 ikasletik gorak egin dute opor*; ? *5.000 tik gora ikaslek...*

4. ZIN EGIN:

Zin egin-ek perpaus konpletiboa gobernatzan du: *Zin egin dut bizi osoan maiteko zaitudala; zin egin du konstituzioa beteko duela*, e.a. Beraz, *Konstituzioa zin egin esatea badaezpadakoa behintzat izango litzateke.

Labur egin beharrean aurkitzen bagara, eta hori telebistan sarri gerta daiteke, bikoizketetan adibidez, honako bide hau egokia izan liteke: *konstituzioaren zina egin; konstituzio-zina egin*.

5. Zenbait aditzen erregimena:

Maitemindu: instrumentalean (*norbaitez*). Literaturan *norbaitekin* ere ageri da.

Sinetsi: inesiboan (*zuga*, *Jainkoagan*, *Jainkoa baitan*, e.a.)

Dena den, sinetsi-k erregimen bat baino gehiago du, esanahia ere halakoa izaki: “*Ez dut horretaz ezer sinisten*”/“*Ez dut horretan sinisten*. 1) *Zerbait sinistu*; 2) *norbaiti/norbait sinistu*; 3) *Jainkoarengan/Jainkoaren baitan sinetsi*.

Amets egin/ametsetan egin: instrumentalean (*norbaitez amets egin*) eta soziatiboan ere bai (*zurekin amets egin dut*). Konpletiboa ere onartzen du, zer esan nahi den: *Amets egin dut Afrikan nenbilela safari batean*.

Amestu-k erabilera berezia luke: “*Euskal Herriarentzat amesten dudana etorkizuna...*” Absolutiboa eskatzen duela dirudi.

Fidatu: instrumentalean (*norbaitez*), baina soziatiboa, eta inesiboa ere (hau da, gainera, corpusean ugariena) erabiltzen dira. Datiboaren erabilera ere berria izango litzateke.

Gogoratu, oroitu: instrumentalarekin hobe: *zutaz*.

Hauetan denetan, hortaz, instrumentala hobesten da. Horrek ez du esan nahi, hala ere, lagunarteko hizkeran edo beste maila batzuetan beste kasuren bat erabili ezin denik edo erabili behar ez denik. Hizkuntza jasoa eta hain jasoa ez dena berezi beharko lirateke.

Pentsatu: instrumentala eta inesiboa (*horretaz pentsatu, horretan pentsatu*).

Dimititu: *kargutik*.

Utzi: *karguari, erretzeari*, baina baita *kargua utzi, erretzea utzi* ere. Hain zuzen, *erretzea utzi / erretzeari utzi* erabilerak aski parekatuak agertzen diren bitartean, *kargua utzi* erabiliago bezala agertzen da corpusean *karguari utzi* baino. Dena den, bi erabilerak lirateke zuzenak.

6. *Galdu izango dut bezalakoak:*

Bizkaiko erabilera dela dirudi. Beste euskalkietan honako hauek erabili ohi dira:

*Seguru aski etorri da / etorri zen,
(seguru aski) etorriko zen,
etorria izan behar du.
Galdua izango dut.*

Eta hizkera jasoan, *-ke-dun* formak: *galdu(a) duket, etorri dateke, e. a.*

7. T(Z)E ALDERA

Ahozko hizkerakoa dela ematen du. Idatzizko lekukotasun gehiegirik ez da. Dena den, *alde* eta *aldera* biak lirateke zilegi.

8. “Han coincidido en señalar”

Bat etorri zerbaitetan, bat etorri horretan, eta horrelakoak izango lirateke ordain egokiak. Nominalizazioa erabili behar bada, —T(Z)EAN eta —T(Z)EKO ORDUAN iruditzen zaizkigu txukunenak: *Halako eta halako bat etorri dira urliaren jokabidea kritikatzean, adibidez. Nolanahi ere, bestela ere esan liteke: biek esan dute; bat datoz diotenean; esan dutenean...*

9. *Atsegingo dute* baino hobe, *atsegin izango dute*. Corpusak hori erakusten du.

Bestalde, esan dezagun *atsegin dut* egokiago, zaharrago eta erabiliago dela *atsegin zait* baino. Azken honek analogiaz sortua edo ematen du.

10. BAIZIK, BESTERIK eta antzekoak

Aditzaren komunztadurari dagokionez, bi jokabideak ageri dira testuetan. Hala ere, *besterik*-en kasuan, dirudienez, komunztadura singularrean egiteko joera askoz hedatuagoa da. *Besterik*-en ezkerretara doan sintagma plurala izanda ere, aditza singularrean ezartzea da erabilera klasikoa. Pluraleko komunztadura egitea berriagoa izango litzateke. Osagai-ordenak ere, agian, badu eraginik: “Ale batzuk besterik etzaizkit gelditzen” (NEtx LBB 293) / “etzegoen bakar batzuk besterik” (Salav 99).

Pertsona komunztadurari dagokionez ere, badirudi ez dela zilegi aditzak *besterik*-en ezkerreko sintagmarekin komunztadura egitea: *Zu besterik ez dut ikusi / zu beste inor ez dut ikusi / *zu besterik ez zaitut ikusi.*

Komunztaduraren aldetik *besterik*-ek eta *baizik/baino*-k era desberdinean jokatzen dute. *Baizik* erabiltzen dugunean, *besterik* erabiltzen dugunean ez be-

zala, aditzak komunztadura egiten du kasurik gehienetan ezkerreko sintagma-rekin:

Zuri baizik ez dizut esan. Liburuak baizik ez ditut erre.

Baina beste ohar bat ere egin behar da. Batetik, badirudi *besterik*-en ezker aldean doan sintagmak absolutiboan joan behar duela: *haurrak besterik ez zen etorri / ez zen etorri haurrak besterik / haurrak beste inor ez zen etorri*. Baina ez, **hurrei besterik ez diot esan / hurrei beste inori ez diot esan*. **Mendian besterik ez naiz ibili / mendian beste inon ez naiz ibili*.

Debeku honek ez du indarrik *baizik* eta *baino*-rekin: *Mendian baizik ez naiz ibili. Mireni baizik ez diot esan*.

Azkenik, sintagmaren erreferentzia generikoa denean, partitiboa erabil daiteke: *Han ez zen gizonik baizik ikusten*. Eta absolutibo singularra ere bai, noski: *Han ogia baizik ez zen jaten*.